

Haur Hezkuntzako oinarrizko gaitasunak



Haur Hezkuntzako
oinarrizko
gaitasunak

Aurkibidea

- 4** Oinarrizko gaitasunak: curriculum-kontzeptu berria
- 7** Oinarrizko gaitasunak eta metodologiak
- 8** Oinarrizko gaitasunak eta haien zehaztapena
- 12** Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna
- 13** Matematikarako gaitasuna
- 14** Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako gaitasuna
- 15** Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna
- 16** Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna
- 17** Giza eta arte-kulturarako gaitasuna
- 18** Ikasten ikasteko gaitasuna
- 19** Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna
 - Gaitasun emozionala

Oinarrizko gaitasunak: curriculum-kontzeptu berria

Azken hamarkadetan, **gaitasun** kontzeptuak gero eta indar handiagoa hartu du hezkuntzaren alorrean, eta egun herrialde askotako hezkuntza-erreformen curriculumetan erabiltzen da.

Errealitate pertsonalaren, sozialaren, naturalaren edo sinbolikoaren alderdiren baten gainean eraginkortasunez eta atseginez eragiteko ahalmena da **gaitasuna**. Gaitasun bakoitza ikaskuntza konplexua da, eta abileziak, jarrerak eta ezagutzak hartzen ditu barnean; ikaskuntza-esperientzien bidez garatzen da, eta horien ezagutza-alorrean hiru jakintza mota daude:

- Kontzeptuzkoa (JAKITEA).
- Prozedurazkoa (EGITEN JAKITEA).
- Jarrerazkoa (IZATEA).

Hortaz, gaitasunak berekin dakar testuinguru berrietara egokitzeko ezagutzak, abileziak eta jarrerak konbinatzea. Eskuratutako ikaskuntzak behar bezala aukeratzeak eta erabiltzeak gai egiten du pertsona, lan-eremuan, eskola-eremuan edo eremu pertsonalean egoera berriei aurre egiteko.

Gaitasun bat lortzeko, ezagutzak eskuratzeko prozesu bati jarraitu behar zaio. Prozesu horretan, hainbat abilezia garatuko dira, bai eta jarrerak sustatuko ere, esperientzian eta balioen hautaketan oinarrituta.

Beraz, **hainbat testuingurutan era askotako eginkizunak konpontzeko aukera ematen duten trebetasunen, ezagutzen, prozeduren eta jarreraren konbinazioak** da gaitasuna. Labur esanda, egiten jakitea litzateke, edo beste era batera esanda, eskuratutako ezagutza bat erabiltzen jakitea, uneko eta testuinguruko ezaugarri edo beharretara egokituta.

Gaitasunak egungo hezkuntza-politiketan txertatzearen xede nagusia da ikas tetxeek haurren garapen osoan esku hartzea, eguneroko ekintzetan erabili ahal izango duten **ikaskuntza integratzailearen** bitartez.

Eguno ikuskera heziketa hutsa baino orokorragoa eta anbizio handiagoa da, eta aukera bat ematen du haurrak bizi behar duten gizarteari aurre egiteko presta daitezen.

Ikuspegi berri horrek gaitasunak barnean hartuko dituen curriculumak behar du. Hain zuzen ere, horixe adierazten da Europako Hezkuntza Informazioaren Sarearen lanetan (Eurydice, 2002:12):

«Dagoen egitatezko ezagutza azkar sortzen, banatzen eta eskuratzen den mundu honetan, gero eta txikiagoa da pertsonen ezagutza hori buruz ikasteko beharra. Horren ordez, eskatzen zaien informazioa hautatzeko, prozesatzeko eta erabiltzeko tresna egokiak behar dituzte, aldatzen ari diren enplegu-, aisialdi- eta familia-ereduei aurre egiteko. Horrexek azaltzen du irakaskuntzan gaitasunak garatzeko dagoen gero eta joera handiagoa, gertakarien ezagutzak irakastekoa baino».

Muinean, oinarrizko gaitasunak gure curriculumean definitzeko eta identifikatzeko erreferentzia-esparruak erakunde hauen proposamenetan oinarritzen dira:

- *DeSeCo proiektua*: Ekonomia Lanikidetzaren eta Garapenerako Erakundearen (ELGE) proiektua.
- Eurydice: Europako Hezkuntza Informazioaren Sarea.
- Europar Batasuna.

Hortaz, hauek dira gure egungo Hezkuntza Legeak ezarritako oinarritzko gaitasunak:

- Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna.
- Matematikarako gaitasuna.
- Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako gaitasuna.
- Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna.
- Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna.
- Giza eta arte-kulturarako gaitasuna.
- Ikasten ikasteko gaitasuna.
- Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna.

Lehen haurtzaroko hezkuntzaren eta, oro har, hezkuntza-prozesuaren helburu nagusia haurren potentzialtasun fisiko eta psikiko guztiak erabat garatzea da; izan ere, horien ondorio zuzena da nortasuna are modu osasungarriagoan, harmonikoagoan eta osoagoan eraikitzea.

Ikuspuntu horretatik begirata, lehen haurtzaroko hezkuntzak lotura estuagoa du **hezkuntza-lorpenekin**, edukiekin baino gehiago; izan ere, gai bat irakasten da bizitzarako hezteko.

Azken finean, curriculum berrien arabera, hezkuntzaren funtzioa haur bakoitzak dituen gaitasunak garatzea eta indartzea sustatzea da.

Abiapuntu horrez gain, hezkuntza-lanean kontuan hartu beharko da, baita ere, gaitasun bat ez dela eskuratzen behin betiko une jakin batean; hedatu eta aberastu egiten da esperientziarekin, norbanakoak bizitzan aurkitzen dituen erronkekin, bai eta ingurune hainbat alorretan sortuko zaizkion arazoak konponduz ere. Funtsezkoak direnez, **gaitasunak** garatzeko lan sistematikoak **haurtzaroan hasi behar du**, eta ondorengo etapetan finkatu egingo dira; izan ere, ikaskuntza horiek berez balio handikoak direnez, norberaren etorkizuneko garapenaren oinarria ere badira.


Lana gaitasunetan oinarritzeak esan nahi du irakasleek **haurrentzat erronka izango diren ikaskuntza-egoera didaktikoak** garatu behar dituztela. Hau da horren xedea: ikasleek lorpenetan pixkanaka aurrera egitea (adimena hobeto erabiltzea; ideiak hainbat modutan adieraztea; lankidetzan egindako lanaren eta bizikidetzaren aldeko jarrerak agertzea; galderak, proposamenak eta konparazioak egitea, etab.); inguruko munduari buruz gehiago ikastea; eta gero eta pertsona seguruagoak, autonomoagoak, sortzaileagoak eta parte-hartzaileagoak izatea.

Gure lurraldean, nola Hezkuntzako Lege Organikoan hala euskal curriculuman, zehaztuta dago zein diren ikasleek derrigorrezko hezkuntza-etapak amaitzean eskuratu behar dituzten derrigorrezko irakaskuntzak eta oinarritzko gaitasunak.

Oinarritzko gaitasunak nola txertatu esplizituki dago adierazita Lehen eta Bigarren Hezkuntzako curriculum-dokumentazioan. Haur Hezkuntzan, ordea, oinarritzko hezkuntzarako ezarritako **gaitasunen garapena erraztu** behar dela bakarrik aipatzen da.

Zer da gaitasunak garatzeko lan egitea?

Oinarrizko gaitasunei buruz egindako ikerketa berriek horiek nola landu behar diren adierazten digute. Horren ondorioz, gaitasunak hiru frontetan garatzen direla laburbil dezakegu (Sarramona, 2007):



Lehenik eta behin, analisi horrek era askotako egoerak sortzeko **hainbat estrategia metodologiko konbinatzeko** beharra eta egokitasuna azaltzen du; egoera horietan, haurrek hainbat ikaskuntza, baliabide eta trebetasun erabili beharko dituzte. Planteamendu hori gauzatzeko, funtsezkoa izango da irakasle bakoitzak ikasle taldeari eta haien motibazio eta interesei buruz egindako analisia; horrela, une bakoitzean egokiena den estrategia metodologikoa aukeratu ahal izango du, hala nola tailerretan lan egitea, unitate didaktikoak, lan-proiektuak, jarduera-txokoak eta lan kooperatiboa.

Bestalde, gaitasunak garatuz lan egiteko **curriculumaren alorretako** irakaskuntza-ikaskuntzako proposamenak garatu behar direla esaten denean, horrek esan nahi du alor bakoitza lagungarria dela oinarrizko gaitasunak eskuratzeko, eta era berean, oinarrizko gaitasun bakoitzak alor bakoitzeko edukiak ikasten laguntzen duela; sostengua elkarrekikoa da.

Azkenik, gaitasunak garatzeko **ikastetxearen antolaketari** buruzko erabakiak hartzeak zer nolako eragina duen nabarmentzen da; adibidez, gai hauei buruzko erabakiak hartzeak: familiarikiko harremana, taldeen banaketa, egokitzapen-aldia, espazioen antolaketa, ordutegiak, materialak, etab. Atal horrek irakasle talde bakoitzaren hausnarketa sakona eta analisia eskatzen du, hezkuntza-bizitzako hainbat alor eta alderdiri buruz. Besteak beste, hausnarketa eta analisia era batekoak edo bestekoak izango dira, ikasleek zer eginkizun betetzen duten, gatazken aurrean nola erantzuten duten edo erabakiak nola hartzen dituzten.

Oinarrizko gaitasunak eta metodologiak

Lehen aipatutako ideia berriz hartuz –egiten jakitea garatzeko eta hainbat testuingurutan erabiltzeko hainbat metodologia proposatzea garrantzitsua dela dioena–, argigarria izan daiteke jardun metodologikoren bat gaitasunen ikuspuntutik aztertzea, bai eta metodologiak berak garapena dakarrela egiaztatzea ere, orain arte adierazitakoaren haritik.

	Lan kooperatiboa	Jarduera-txokoak
Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna	Helburu bateratua lortzeko, besteekiko loturak eta harremanak errespetuan oinarrituta egite aldera, beharrezkoa da gatazkak konpontzeko erabil daitezkeen komunikazio-abileziak garatzea.	Metodologiaren eta gaitasunaren arteko lotura ezartzen da, errealitatea interpretatzeko eta ulertzeko aukera ematen duen aldetik, bai eta ezagutza eta ekintza antolatzeke eta autorregulatzeko aukera ematen duen aldetik ere.
Matematikarako gaitasuna	Metodologia honen eta gaitasun honen arteko loturak berekin dakar ezagutza matematikoak erabiltzeko beharra, informazioa interpretatzeko eta ekoizteko, bai eta sortutako egoeretako arazoak konpontzeko ere.	Metodologia honi esker egin daitezkeen jarduera ugariak eskuratutako ezagutza matematikoak jartzen dituzte martxan, bai eta horien bat-bateko aplikazioa ere, eguneroko bizitzako hainbat egoeratan.
Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako gaitasuna	Lan kooperatiboa besteekiko harremanean oinarritzen da, helburu bateratua lortzeko. Horretarako, norberarekiko eta besteekiko jarrera arduratsuak hartu behar dira.	Jarduera aukeratzeko, hautatzeko eta lehentasuna emateko dinamikari esker, abileziak garatzen dira ekintzaren denboraren sekuentziazioan moldatzen jakiteko. Halaber, zenbait txokok –adibidez, jolas sinbolikoaren txokoak– aukera ematen dute gaitasun hori argi eta garbi garatzeko.
Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna	IKTek emandako informazioak azterketa kritikoa behar du, norberaren lan autonomoaren eta besteekin iritziak erkatuz egindako lanaren bidez.	Teknologiaren txokoei esker, mundu digitalerako sarbidea egunerokoaren alorrean koka daiteke.
Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna	Lan kooperatiboa gaitasun hau garatzeko metodologia egokienetako bat da; izan ere, beharrezkoa da pertsonak ezagutzea eta baloratzea, komunikatzen eta norberaren ideiak adierazten jakitea, besteen ideiak entzuten jakitea, besteen lekuan jartzeko eta haien ikuspuntua ulertzeko gai izatea (nahiz eta norberarena ez bezalakoa izan), eta komunitate-bizitzako mailetan erabakiak hartzea. Lan kooperatiboan funtsezkoa da akordioak lortzea, eta horretarako, bestea errespetatu eta onartu behar da.	Gelan antolatzeke eta funtzionatzeko hainbat modu eskaintzeak ezagutza, elkar ulertzea, eta taldeen nahiz gizartearen oinarrian dauden balioen onarpena sustatzen ditu.
Giza eta arte-kulturarako gaitasuna	Artearekin eta kulturarekin lotutako jarduera asko talde-lanaren ondorio dira. Lan kooperatiboak elkarrekin egiteko eginkizun bat gauzatzeko behar diren lankidetzak-abileziak bermatzen ditu.	Txokoetan antolatuta, dauden baliabideak optimizatzen dira, eta ikasleei era askotako hainbat esperientzian parte hartzeko aukera ematen zaie.
Ikasten ikasteko gaitasuna	Jardun kooperatiboak ondorio garrantzitsuak dituen inplikazio pertsonala dakar berekin; izan ere, agindutako eginkizuna egiteko, beharrezkoak dira norberaren erantzukizuna eta konpromisoa, eta behar den laguntza eskaintzen eta jasotzen jakin behar da.	Jarduera-txokoek eta horietako bakoitza eskura izateak abileziak garatzen ditu ikaskuntzan modu autonomoan hasteko, norberaren helburu eta beharrekin bat etorritik. Halaber, motibazioan, norberaren konfiantzan eta ikasteak eragindako plazerean eragiten duen sentimendua izaten laguntzen du.
Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna	Metodologia honetan beharrezkoa da harremanak izateko, lankidetzarako eta talde-lanerako gizar-te-abileziak izatea: besteen lekuan jartzea, haien ideiak aintzat hartzea, elkarrizketan egiten jakitea eta negoziatzea. Halaber, denborak eta eginkizunak antolatzeke abileziak, eskubideak onartzeko eta defendatzeko ahalmena, eta arriskuak beren gain hartzeko ahalmena behar dira.	Bakoitzak bere irizpidearekin ikasgelan dauden txokoak aukeratzeko ahalmena izatea lagungarria da autonomia eta erantzukizuna garatzeko.

Oinarrizko gaitasunak eta haien zehaztapena

Gaitasunen ikuspegitik, hezikuntza-prozesuaren azterketa zehatza egiteko, beharrezkoa da gaitasun bakoitzaren atzean dauden abileziak argitzea. Horrela, abilezia horien artean eta curriculumean adierazitako helburuen arteko harremana zehaztu ahal izango da.

Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna

Pentsamenduak, sentimenduak eta ikaslearen gertuko gertakariak ahoz nahiz idatziz ulertzeko, adierazteko eta interpretatzeko abileziak garatzen ditu, bere hizkuntzan nahiz beste batean, eta hainbat testuinguruan. Norberaren portaera eta besteekiko harremana arautzeko tresnak eskaintzen ditu.

Gaitasun honek hizkuntzaren lau trebetasunak hartzen ditu barnean; hau da, entzutea, hitz egitea, irakurtzea eta idaztea.

Ikasleek honako hau egiteko gaitasuna izan behar dute:

- Argi eta koherentziaz adierazteko, daukan adinerako lexiko egokia erabiliz.
- Era askotako objektuak, pertsonak eta egoerak deskribatzeko.
- Hainbat euskarritako informazioa lortzeko: ipuinak, argazkiak, piktogramak, irudi digitalak, ikonoak, etab.
- Poesiak eta abestiak buruz ikasteko eta esateko.
- Istorio sinpleak asmatzeko eta kontatzeko, bai eta norberaren bizipenak kontatzeko ere.
- Hitz eta esaldi sinpleak irakurtzeko eta idazteko.

Matematikarako gaitasuna

Abileziak garatzen ditu, ezagutza eta arazoibide matematikoak errealitatearen deskribapenean eta eguneroko bizitzako arazoaren konponketan gero eta zehaztasun handiagoz erabiltzeko.

Gaitasun honek zenbakiekin eta oinarrizko eragiketen hastapenekin, formekin, denborarekin eta adierazpide espazialarekin zerikusia duten alderdiak hartzen ditu barnean.

Ikasleek honako hau egiteko gaitasuna izan behar dute:

- Kantitatearen, neurriaren, espazioaren eta denboraren oinarrizko zenbatzaileak identifikatzeko eta erabiltzeko.
- Gutxienez digitu bat duten zenbakiak bereizteko, erabiltzeko eta trazatzeko, eta dagoen kantitateari lotzeko.
- Oinarrizko forma geometrikoak bereizteko, izendatzeko eta adierazteko.
- Besteak beste, objektuak, zenbakiak, formak eta koloreak ordenatzeko, bi irizpide edo gehiago kontuan hartuta.
- Batuketak eta kenketak behar dituzten eragiketa laburrak egiteko.

Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako gaitasuna

Mundu fisikoa bera eta hark pertsonetikiko duen elkarrekintza ulertzeko abileziak garatzen ditu, bai eta norberaren gorputza eta ingurunea ezagutzeko, babesteko eta hobetzeko konpromisoa hartzeko ere.

Gaitasun honek barnea hartzen ditu pertsonetikiko elkarrekintzarekin, objektuen erabilerarekin, eta espazioa eta denbora zientifikoki aztertzearekin zerikusia duten alderdiak.

Gaitasun hau garatzeko, ikasleek honako hau egin behar dute:

- Lekuak kokatu eta eguneroko espazioetan orientatu.
- Denboran kokatu: atzo, gaur, bihar, eguna, astea, urtaroa, etab.
- Gertakari garrantzitsuak identifikatu.
- Hurbileko errealitateko elementu garrantzitsuenak bereizi eta definitu: ingurunea eta izaki bizidunak, gizarte-taldeak, lanbideak, komunikabideak eta garraiobideak, hiriko elementuak, kultura- eta arte-adierazpenak, etab.
- Osasunerako arriskuak identifikatu eta saihestu.
- Bizirik irauteko eta osasunerako oinarritzko ohiturak hartu.
- Landareak eta animaliak errespetatu.

Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna

Ikus-entzunezko eta informatikako tresnak modu autonomo eta kritikoan erabiltzeko abileziak garatzen ditu, nola informazioa bilatzeko, lortzeko, prozesatzeko eta eraldatzeko, hala komunikatzeko.

Gaitasun honek barnean hartzen ditu IKTen aukeren eta mugen ezagutzarekin zerikusia duten alderdiak, bai eta informatika-sistemen hurbilketarekin zerikusia dutenak ere.

Gaitasun hau garatzeko, honako hau egin beharko dute ikasleek:

- Gailu elektronikoak pizten eta itzaltzen jakin.
- Sagua erabili eta haren aukerak zein diren jakin.
- Ohikoenak diren ikonoak identifikatu.
- Inprimatzen jakin.
- Informazioa aurkitu eta atera.
- Web-orrietako estekei jarraitu.
- Programa sinpleak erabili.
- Adierazteko, marrazketako programa sinpleak erabili.

Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna

Abileziak garatzen ditu, bizikide izateko, printzipio etiko eta demokratikoak ulertzeko eta aintzat hartzeko, inguruko gizartea ulertzeko, eta balio unibertseleko herritartasun globaleko eta errespetuzko sentimendua garatzeko.

Gaitasun honek barnean hartzen ditu printzipio etikoekiko eta bizikidetzara-arauei balorazioarekiko errespetuarekin zerikusia duten alderdiak.

Gaitasun hau garatzeko, ikasleek honako hau egin beharko dute:

- Hitz egiten zaienean, adi-adi entzun.
- Txanda gordetzen jakin.
- Besteen aurrean aurkeztu.
- Laguntza eman.
- Jolas-arauak elkarbanatu eta errespetatu.
- Arauak egiten parte hartu.

Giza eta arte-kulturarako gaitasuna

Pentsamenduaren abileziak garatzen ditu, norberaren eta besteen ideiak berriz lantzeko, arte-sormenaren mekanismoak zein diren jakiteko eta horiek ulertzeko, eta kultura- eta arte-adierazpenak ulertzeko, aintzat hartzeko eta horietan parte hartzeko.

Gaitasun honek barnean hartzen ditu artearen eta kulturaren ulermenarekin zerikusia duten alderdiak, bai eta norberaren arte-adierazpenarekin eta kultura-gertaeraren sormenarekiko estimuarekin zerikusia dutenak ere.

Gaitasun hau garatzeko, honako hau egin behar dute ikasleek:

- Kultura- eta arte-adierazpenak ulertu eta aintzat hartu.
- Irudiak hainbat material plastikoarekin aztertu eta adierazi.
- Norberaren gorputza erabili, beste adierazpen-elementu bat balitz bezala, sentimenduak, emozioak edo bizipenak adierazteko gai.
- Erritmo bati jarraitu.
- Abestia erabili, mugimenduari lotuta eta lotu gabe.

Ikasten ikasteko gaitasuna

Abileziak garatzen ditu norberaren ikaskuntza planifikatzeko, garatzeko eta ebaluatzeko; ikasteko motibazioa sentitzeko; eta hori lortzeko, hainbat testuingurutan tresna egokiak erabiltzeko.

Gaitasun honek barnean hartzen ditu norberaren abilezia kognitiboekin eta jokabide-abileziekin zerikusia duten alderdiak, bai eta besteengandik eta besteekin ikastearekin zerikusia dutenak ere.

Gaitasun hau garatzeko, ikasleek honako hau egin beharko dute:

- Inguruko mundua hobeto ezagutzeko behaketa eta esplorazioa erabiltzen ikasi.
- Jasotako informazioa aukeren eta mailen arabera antolatu.
- Ondorioen arabera, kausa-efektuzko harreman sinpleak egin.
- Oinarrizko arauak errespetatu; besteak beste, lanari, jarrera egokiari, denborari eta espazioari buruzkoak.
- Materialak eta baliabideak egoki eta arduraz erabili.

Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna

Abileziak garatzen ditu erabakiak hartzeko, horiek praktikan jaritzeko, arriskuak hartzeko eta erantzukizunak onartzeko. Harremanak egiteko eta taldean lan egiteko gizarte-abileziak ere garatzen ditu.

Gaitasun honek barnean hartzen ditu idiekin ekintza bihurtzeko norbera bere burua eta besteak ezagutzearekin zerikusia duten alderdiak, bai eta ikuspegi estrategikoarekin eta norbera bere irizpidearekin aukeratzeko gaitasunarekin zerikusia duten alderdiak ere.

Gaitasun hau garatzeko, ikasleek honako hau egin beharko dute:

- Beren burua ezagutu eta kontrolatu.
- Hainbat tresna modu eraginkorrean erabili.
- Elikatzeko, jantzeko, garbitasuneko eta atsedenerako ohiturak ezarri.
- Eginkizunak modu autonomoan egin.
- Iniziatiba hartu, kontrolatzeko gai den arrisku batzuk bere gain hartuz.

Gaitasun emozionala

Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasunaren barruan, gaitasun emozionala landu dezakegu.

Gaitasun emozionalak norbere emozioak eta sentimenduak zein diren jakiteko eta horiek kontrolatzeko abileziak garatzen ditu, bai eta emozio eta sentimendu horiek besteengan ikusteko ere. Halaber, besteekin harreman positiboak egiteko eta era askotako eskakizunei eraginkortasunez erantzuten dien pertsona zoriontsua izateko ere garatzen ditu abileziak.

Gaitasun honek barnean hartzen dituen alderdiekin zerikusia dute autokontzeptuaren eraketarekin, bai eta autoestimua pertsonekin harremanak eginez garatzearekin ere.

Gaitasun hau garatzeko, ikasleek honako hau egin beharko dute:

- Besteen afektua adierazi eta onartu.
- Besteen arazokiko interesa erakutsi eta besteei zoriontsu izaten lagundu.
- Portaera pixkanaka kontrolatu.
- Ahalegina nahiko izan ez denean, frustrazioa eta porrota onartu.

Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna

Gaitasun honek barnean hartzen du haurraren hizkuntzaren erabilera, bai eta **entzuteko, hitz egiteko, irakurtzeko eta idazteko** trebetasunen garapena ere. Hizkuntzak pentsamendua eraikitzen du, eta ideiak, sentimenduak eta gertakariak adierazteko eta interpretatzeko bidea da. Horrez gain, errealitatea ulertzeko, eta pentsamendua, emozioak eta portaera autorregulatzeko bidea ere bada, ama-hizkuntzan nahiz beste hizkuntza batean.

Hizkuntza-komunikaziorako gaitasunak berekin dakar hizkuntza hainbat gizarte- eta kulturalorretan erabiltzen jakitea, hainbat xederekin, eta testuinguru bakoitzeko berezko ahozko interakzioak erabiliz.

Komunikaziorako, ezagutzarako eta hausnarketarako tresna da hizkuntza. Aldi berean, besteekin eta ingurune fisiko, sozial eta kulturalarekin loturak eta harremanak egiteko ikasteko –hitzaren adierarik zabalenean– funtsezko tresna ere bada.

Hizkuntzaren bitartez besteen bizikide gara, sentimenduak eta nahiak adierazten dira, gatazkak konpontzen dira, ideiak eta iritziak alderatzen eta proposatzen dira –besteenak errespetatuz–, eta norberarenak ez bezalako kulturak ezagutzen dira.

Aurkezten zaizkien komunikazio-aukeren bitartez haurrek abilezia hauek garatzen dituzte: ahozko adierazpena zabaldu eta aberastu, eta hizkuntzaren funtzioak eta ezaugarriak identifikatu. Haurrek komunikazio-gertaeretan parte hartzen dutenean, esperientziari eta ideiei buruz hitz egiten dute, besteek zer esaten duten entzuten dute, eta elkarri eragiten ikasten dute. Horrelakoetan, norberaren eta gizartearen beharrak asetzeko funtsezko elementu den aldetik hautematen dute hizkuntza.

Ukimugi proiektuan ematen diren jardueren eta materialen xedea haurrei hitz egiteko, hitz eta esamolde berriak erabiltzen ikasteko, eta ideia konplexuagoak sortzeko aukerak eskaintzea da, eta, aldi berean, haien entzuteko gaitasuna garatzen dute. **Hitz egiteko eta entzuteko** gaitasuna indartu egiten da, komunikazio-aukerak ugaritzen badira. Hainbat modutan har dezakete parte komunikazio-aukera horietan:

- Istorio bat edo asmatutako nahiz egiazko gertakari bat kontatuz, eta ahalik informazio leial eta zehatzena emateko, objektuak, pertsonak, lekuak eta uneak deskribatuz. Ahozko narrazioa lagungarria da behaketa, oroimena, imajinazioa, sormena, lexikoa eta sekuentziatutako gogoeta garatzeko.
- Kanpoko sentimenduei eta gertakariei buruz hitz eginez, eta aldi berean, enpatiazko edo lankidetzarako jarrera garatuz, konponbideak bilatzeko. Elkarriketak berekin dakar hainbat abilezia garatea; besteak beste, entzutea, ulermena, eta galderen eta haien erantzunen formulazioa.
- Nork bere ideiak, eskuratutako ezagutzak, prozesu baten urratsak eta gai bati buruzko iritzi pertsonalak jolasa edo esperientzia balitz bezala adieraziz. Praktika horrek berekin dakar bakoitzak pentsatzen duena adierazteko edo frogatzeko arrazoitza eta esamoldeak bilatzea, akordioak eta desakordioak adieraztea, eta esperientzian oinarritutako ondorioak ateratzea. Hori guztia argudioaren oinarrian dago, konbentzitzeko metodoa den aldetik.

Ahozko hizkuntzaren garapenerako aberasgarriak diren egoerak eta jarduerak aurkezteaz gain, lbaizabalen proposamenean **hizkuntza idatzian** trebatzea ere bultzatzen da. Horretarako, hainbat testu-eramaile adierazteko eta interpretatzeko beharra barnean hartzen dituzten egoeretan oinarritzen da. Proposatutako jardueretan, testuek berariazko funtzioak dituzte; hots, lagundu egiten diete, zertarako idazten den ulertzen. Irakurketako hainbat materialekin lan egiteko aukera asko eta era askotakoak eman nahi dizkiegu haurrei, hizkuntza idatziaren ezaugarri eta funtzio batzuk uler ditzaten.

Matematikarako gaitasuna

Matematikarako gaitasuna **arrazoibide matematikoa** garatzeko eta erabiltzeko abilezia da, eguneroko egoeretan arazoak konpontzeko; informazioa interpretatzeko, adierazteko eta lortzeko; eta erabakiak hartzeko.

Haurrak ikas tetxera iristen diren arazoibide matematikoarekin zehazki erabiltzeko esperientziak izan dituztela, hurbilenerako ingurunean. Egoera horiek balio handia dute; izan ere, hurbilketa bat dira zenbaki kontzeptura, eta arazoibide matematiko konplexuenak eraikitzeke erabiliko dituzten oinarriko espazio eta denbora kontzeptuetara.

Arazoibide matematikoaren **abstrakzio-gaitasuna** da matematikarako gaitasunak garatutako abilezia nagusietako bat. Abstrakzioari esker, zenbakiak eta ikurrak interpretatzen dira, haurrarentzako ezaguna den mundu errealekiko harremanean; eta hori lagungarria da informazioa zehaztasunez adierazteko, bai eta pentsamendu-prozesuetarako ere.

Honako hauen bidez sustatzen da Haur Hezkuntzako ikasleen arazoibide-gaitasunen garapena: problema baten eta haren ebazpenen ulermenaren bidez, behar den informazioa bilatuz, egon daitezkeen emaitzak aintzat hartuz eta konparatuz, ideiak adieraziz eta horiei buruz besteekin eztabaidatuz, etab. Labur esanda, gaitasun honek pentsamendu matematikoaren formak indartzen eta garatzen ditu, eta horretarako, Lehen Hezkuntzako etapen ezagutza aurreratuak eraikitzeke lagungarriak izango diren funtsezko abileziak lortuko dituzte.

Horrela, kontzeptu matematikoak dituzten jarduerak lagungarriak dira haurrek ezagutzaren alde aurreko eskemen funtsezko kontzeptuak ulertzeko, bai eta kontzeptu berrietara hurbiltzeko ere. Era berean, sortzen dituzten kontzeptuak eta arazoibideak hitzez adierazteke gaitasuna sustatzen dute, bai eta norberaren ikasteko gaitasunaren pertzepzioa ere.

Hori guztia lagungarria da talde-lanerako jarrera positiboak sustatzeko eta eskuratzeko, eta besteekin ideiak errespetuz trukatzeko. Horrez gain, gizarte-bizitzan parte hartzen laguntzen du, bai eta bizitzan ikasten jarraitzeke gogoa garatzen ere.

Ukimugi proiektuan garrantzi berezia ematen zaio **adimen-garapena** sustatzen duten aukerak sortzeari. Horrela, zenbatzeak hainbat aukera ematen ditu, haurrari mundua ulertzen lagunduko dioten harremanak egiteko. Buruz egindako harreman horiek dira ezagutza logiko-matematikoa eratzen dutenak; besteak beste, dimentsioak, neurriak, antzekotasunak, ezberdintasunak, pisuen konparazioa eta zenbakiak.

Hortaz, jarduera intelektual emankorra sustatzen duten egoerak eskaintzen ditugu, haurrengan zentzuzko ikaskuntza erabilgarriak sortzeko; hau da, eguneroko bizitzako eta eskola-bizitzako egoerak eta gatazkak konpontzearekin zehazki erabiltzeko.

Ikasgelan sortzen diren jarduerak eta esperientziak garatuz, gure proposamen metodologikoak matematikarako gaitasuna eskuratzeko sustatzen du; izan ere, esanahiak lantzeko prozesu aktiboa da ikaskuntza, eta gure ustez, eraginkorragoa da beste pertsona batzuekin interakzioan egiten bada, informazioa elkarbanatzen eta trukatzeko baitute, eta arazoak guztien artean konpontzen baitituzte.

Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako gaitasuna

Gaitasun honen bidez haurrek mundu fisikoarekin –naturalarekin nahiz artifizialarekin– elkarrekitzeko abileziak eskuratzen dituzte, eta izaki bizidunei, objektuei eta inguruko munduko beste elementu batzuei buruzko ezagutzak hedatuko dituzte; hala, ingurunea aintzat hartuko dute.

Gaitasun hori indartuz, **pentsamendu zientifikoaren** ezaugarri diren gaitasunen eta jarrerren garapena sustatzen du, eta horretarako, haurrei mundu naturalari eta sozialari buruz ikasteko aukera ematen dieten esperientziak erabiltzen dira.

Bestalde, gaitasun hori garatzeko, haurrek fenomeno naturalekiko eta zientzia-aurrerapenekiko duten jakin-minean oinarritu gaitezke; izan ere, *nola* eta *zergatik* galderak aukera paregabea eskaintzen digute **behaketaren** eta **esplorazioaren** bidez pentsamendu zientifikoan sartzeko.

Jaiotzen diren unetik, haurrek hurbileko munduari buruzko iritziak egiten dituzte, nola ingurune fisikoari hala sozialari buruzkoak. Ideia horiek gertakari arruntak ulertzen eta errealitateari zentzua aurkitzen laguntzen diete, funtsezko bereizketak eginez; adibidez, naturala denaren eta artifiziala denaren artean, objektu baten eta izaki bizidun baten artean, landareen eta animalien artean, etab. Adin horietan, besteak beste, familiako kide bakoitzak zer eginkizun betetzen duen identifikatzen, bizimoduak ohikoa denaren bitartez bereizten eta komunikabideen erabilgarritasuna ulertzen hasten dira.

Izaki bizidunekiko harremanak eta fenomeno naturalen behaketak nabarmen eta modu entretenigarrian sustatzen dute haurren adimen- eta afektibitate-gaitasunaren garapena; izan ere, natura-inguruneak esplorazioa eta galderak egiteko gaitasuna bultzatzen ditu.

Ukimugi proiektuak emandako materialak egokiaz dira haurrek honako hau garatzeko: **behaketa**; analisi sistematikoaren eta ikerketazientifikoaren bitartez **arazoak konpontze aldera, galderak egitea**; eta esperientzia zuzenetan oinarritutako **inferentzien eta argudioen lanketa**. Hori lagungarria da dituzten ezagutzetan eta ikasitako informazio berrian oinarrituta aurrera egiteko, bai eta **ikaskuntza berriak eraikitze** ere.

Haurrek behatzen ikasten dute, ingurune elementuen ezaugarriak identifikatzeko arreta eta kontzentrazioa eskatzen dieten egoerak sortzen direnean. Behatutakoa deskribatzeko, xehetasunak identifikatzeko eta irizpideen arabera konparatzeko galderak edo estrategiak erabiltzeak gutxi-asko konplexuak diren prozesu kognitiboak eragiten ditu, behatutako fenomenoaren azalpenak lantzean. Era berean, elkarrizketa eta besteekin iritziak trukitzea sustatzen du, eta hori lagungarria da ikaskuntzarako.

Ikasleek natura-inguruneari buruz loritutako ezagutzak eta ulermenak gogotarako jarrera sustatzen du haiengan, pertsonen espazio fisikoan duten eraginari buruz. Halaber, ingurumenearen zaintzan eta babesean parte hartzera bultzatzen ditu.

Bestalde, gizarte- eta kultura-ingurunea ezagutzeko interes handia ere erakusten dute ikasleek. Beren buruari eta familiei buruz hitz egitea atsegin dute, une berezietan eta eguneroko gauzei buruz, eta ingurunean bizi diren pertsonen zer egiten duten edo eguneroko bizitzan erabiltzen diren tresnak nola dabilen jakitea ere gustuko dute. Hori dela eta, balio handia du gizarte osatzen duten pertsonen bizimoduan lana funtsezkoa dela erakusten duten esperientziak bizitzeak, bai eta lanetik zer onura ateratzen dituzten ikusteak ere, familiako eta komunitateko bizimodua hobetzeko.

Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna

Gaitasun hori garatze aldera, **informazioa lortzeko, bilatzeko** eta **prozesatzeko** abilezia eskuratzeko materialak eta baliabideak eskaintzen dizkiegu haurrei, informazio hori ezagutzera bihurtzeko.

Informatzeko eta komunikatzeko ikus-entzunezko hedabideak balio handiko tresnak dira, eta haurrengan jakin-mina eta esploratzeko interesa pizten dituzte, haurtzaroko etapan. Hain zuzen, teknologia berriak ezinbestekoak dira haurren nahiz helduen ikaskuntzarako giro motibatzaileak eta konstruktiboak sortzeko. Haurren eraginkortasuna handitu egiten da, teknologia berriak erabiliz gutxi-asko konplexuak diren erantzunak bilatzen badituzte.

Hori dela eta, funtsezkoa da informazioaren eta komunikazioaren teknologiek duten eginkizuna zehaztea, ezagutza sortzen duten lan-tresnak diren aldetik; bai eta ekoizteko, ikertzeko, kontsultatzeko edo besteekin komunikatzeko balio duten tresnak diren aldetik ere.

Gaur egun, informazio ugari dugu, eta horrek haurrei ere eragiten die; izan ere, errealitateari buruz egiten duten irudia sarri hedabideen bidez eskuratutako ideietan –egiazkoetan zein faltsuetan– oinarritzen dute. Hedabide horietako mezuek eragin handia dute haurraren ikaskuntzan; eragin positiboa nahiz negatiboa.

Gaitasun honi dagozkion abileziak Haur Hezkuntzatik garatuz, haurrak teknologia eguneroko tresna balitz bezala erabiltzeko abantaila izango du, eta etekin handia aterako dio tresna horri bere bizitzan. Esan dezakegu adin honetan informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzen dituzten haurrek informazioa bilatzeko, erregistratzeko eta aztertze eginkizunak ikasten dituztela, eta are garrantzitsuagoa dena, informazio hori prozesatzen ere ikasten dutela.

Gaur egun Haur Hezkuntzako ikasgeletan aurrera eramaten den hezkuntza-ekintzak hainbat baliabide erabiltzea proposatzen du, hala nola ordenagailua eta ikus-entzunezko beste euskarri batzuk. Horrela, ikaskuntzaren erritmoa bizkortzen da, motibazioaren, sormenaren garapenaren eta tresnen erabileraren bitartez. Gainera, talde-lana, jakin-mina eta ikertze gogoia sustatzen ditu.

Ukimugi proiektuan aurkeztutako materialak informazioaren eta komunikazioaren teknologiak informazioaren trateran funtsezko elementu gisa erabiltzeko bideratuta daude, informazio hori norberaren ezagutza bihurtzeko. Gure proiektuan era askotako teknikak eta estrategiak erabiltzen ditugu informazio hori eskuratzeko, zer iturritara jotzen den eta zer euskarri erabiltzen den.

Gaitasun honi dagozkion abileziak ustiatzeko ildo orokorra bideratuta dago tresna teknologikoe-kin praktika eraginkorra egitera. Lehendabizi, kultura teknologikoa aurkeztu nahi zaie haurrei, eta ondoren, tresnekin trebatzen irakatsi. Jarduera-esperientzien eta -proposamenen xedea da haurrek eguneroko erabiltzen diren aparatuak ezagutzea (eskuko telefonoa, telebista, ordenagailua...), haiek eguneroko bizitzan dituzten erabilerak eta aplikazioak ulertzea, bai eta aparatu horiek ikasgelan eta eskola-jardueretan txertatzea ere. Jarduera horiekin, tresna teknologikoak egoki eta gogoeta eginez erabiltzea ere lantzen dute, eguneroko erronketarako –informazioa bilatu, komunikatu, informatu, etab.– konponbide berriak ikertzeko, aztertze eta bilatzeko tresna diren aldetik. Proposamen horiek abian jarrita, informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasunaren garapena sustatuko eta optimizatuko da.

Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna

Gaitasun honek abilezia eta estrategia soziokognitiboak garatzen ditu haurraren gain. Besteak beste, hauek dira abilezia horiek: **bizikide izatea**, **gatazkak antzematea** eta modu konstruktiboan **konpontzea**; erabakiak hartzea; nork bere burua ezagutzea, aintzat hartzeko eta besteekin testuinguru demokratiko batean harremanak egiteko.

Nork bere burua eta besteak ezagutzeko beharrak inguruko pertsonekin komunikatzera bultzatzen du haurra. Horrek aukera paregabea eskaintzen du hainbat ezagutza mota eta gizarte-abilezia barneratzeko, inguruko pertsonen laguntzarekin. Hori funtsezkoa da haurraren nortasunaren eraketa-prozesuan.

Nortasuna garatzeko prozesu horretan, beste hurrekiko harremanak eginkizun garrantzitsua betetzen du. Kideekin komunikatzeko beharra elkarrekin egindako jardueretan oinarrituta sortzen da, jolasten direnean edo beste jarduera batzuk egiten dituztenean.

Beste haur batzuekin jarduerak eginez, lehen joko-kabide-ohiturak eskuratuko dituzte kolektibitatean, gertueneko haurrekin erlazionatzen ikasiko dute, barneratutako jokaera-arauak erabiltzeko beharra ulertuko dute, bai eta beste batzuk ikasi eta egoera jakinetara egokitzeko beharra ere. Jardueran, haurrak inguruko bizimodua arautzen duten gizarte-arauen eta -harremanen sistema barneratzen du.

Gizarteko kide diren aldetik, haurrek bertan bizitzen ikasi behar dute beren eta besteen beharrak elkarbanatuz eta errespetatuz; hori dela eta, hezkuntzak izaki sozialen ideia sustatu behar du ikaskuntzan.

Egungo gizarteko herritar izateak esan nahi du besteekin lan egiteko behar dugula eta printzipio demokratikoak erabili behar ditugula, gizarte plural baten barruan. Hori dela eta, hauek dira Haur Hezkuntzan garatu beharreko portaera eta kontzeptuetako batzuk: tolerantzia, askatasuna, pluraltasuna, errespetua eta argudiatutako kritika. Horrela, bizikidetza-arazoak eta intergatazkak are jarrera konstruktiboagoarekin konponduko dira.

Haur Hezkuntzan, herritartasunerako prestakuntza zuzenduta dago ohiturak, abileziak, jarrerak eta portaerak eskuratzean modu integratuean eragitera, haurrek printzipio demokratikoak zein diren jakin dezaten, horiek ulertu ditzaten, bai eta aintzat hartu ditzaten ere. Hori lagungarria izango da ondorengo etapetan bizi behar izango duten gizartean herritar-izaera betetzeko.

Ukimugi proiektuan lan dutako balioek funtsean hainbat prestakuntza psikologiko lantzeko balio dute; besteak beste, tolerantzia, lankidetzaren, elkarrekotasuna, begirunea, erantzukizuna eta aniztasunarekiko estimua. Elementu horiek guztiak nahitaezkoak dira herritartasunerako hezkuntzan. Horren ondorioz, haurrek aukera dute pentsatzeko, sentitzeko eta ekiteko hainbat modu bereizteko, aintzat hartzeko eta errespetatzeko; izan ere, modu horiek beti ez datoz bat haurrenekin. Halaber, laguntzeko eta lankidetzarako jarrerak gara ditzaten nahi dugu, bakoitzaren desberdintasunak eta haur taldearen kontuan hartuta.

Ukimugi proiektuak dirauen bitartean, haurrei eta irakasleei zeharka ematen zaizkie jolasen, jardueren eta esperientzien ereduak. Horien bidez, hainbat gizarte-abilezia garatzen dituzte, gizarterako eta herritartasunerako gaitasunarekin zerikusia dutenak, eta batez ere, jolas-tailerretako eta jarduera kooperatiboetako proposamenekin zerikusia dutenak. Era berean, ipuinetan kontatzen diren istorioen bitartez, gizarte bidezkoagoa eta solidarioagoa sortzen lagunduko duten **balio** egokien garapena sustatuko da.

Giza eta arte-kulturarako gaitasuna

Gaitasun honek hainbat abilezia garatzen ditu **kultura-** eta **arte-adierazpenen** berri izateko, eta horiek ulertzeko, aintzat hartzeko eta kritikoki baloratzeko; izan ere, adierazpen horiek norberaren aberastasunerako eta gozamenerako iturri dira, bai eta gizadiaren ondare ere.

Gaitasun hau garatzeko proposatu behar diren esperientziak bide eman behar diote adierazpen pertsonalari, hainbat hizkuntzaren bitartez. Halaber, sentsibiltatea, ekimena, jakin-mina, naturaltasuna, imajinazioa, gustu estetikoa eta sormena sustatu behar dituzte, bai eta arte-adierazpena ulertzeko gaitasunak ere.

Artearen berri giza adierazpena den aldetik izatea funtsezkoa da haurren hezkuntzan, bai eta haien eboluzio-, zentzumen- eta adimen-prozesuaren garapenean ere, pentsamenduak eta sentimenduak komunikatzeko eta adierazteko baliabidea baita.

Haurrek besteak beste musikaren, irudien, ahozko hizkuntzaren eta gorputz-hizkuntzaren bidez adierazten eta komunikatzen dituzte sentimenduak eta pentsamenduak. Arte-hizkuntzek sentipenen, koloreen, formen, konposizioen, objektuen, analogien, metaforen eta mugimenduen bitartez komunikatzeko aukerak ematen dituzte.

Hezkuntzan, artea faktore erabakigarria da norberaren eta besteen ideiak eta sentimenduak berriz lantzeko, eta beste diziplina batzuek haurrei ulermenerako eta adierazteko eman ezin dizkieten bideak eskaintzen ditu. Halaber, adierazteko modu hori bizitzaren hainbat mailatan dago, eta prestakuntzaren lehendabiziko urteetatik eragiten du pertsonengan, hautemateko, sortzeko, sentitzeko eta hunkitzeko gaitasuna garatuz.

Giza eta arte-kulturarako gaitasuna lantzeko, arte formateko nahiz zentzumenezkoak sortzeko behar diren ahalmenak garatzen dira, bai eta artea kultura-fenomeno gisa ulertzeko behar direnak ere.

Jaiotzatik, haurrak zentzumenen bidez hautematen du inguratzen duen mundua, aurretik dituen ezagutza-eskemak osatzen dituzten sentipenen bidez. Ondoren, interpretazio- eta imitazio-ezagutzaren etapa dator. Horrela, hazten doan heinean, besteekin komunikatzeko eta adierazteko modua bilatzen du; horretarako, haren ulermenak dituen elementuak hartzen ditu, eta arte-hizkuntza erabiliz adierazten hasten da. Horren bitartez, egoerak eta besteekin harremanak proiektatzen ditu.

Ukimugi proiektuak hainbat ikuspegitatik heltzen dio lanari, eta hainbat jarduera, esperientzia eta material eskaintzen ditu, hainbat arte-teknika ikasteko. Era berean, lagungarriak izango dira artelanak, musika-entzunaldiak, eta plastikako banakako nahiz taldeko tailerrak, behatzeko, estimatzeko eta sortzeko.

Giza eta arte-kultura indartzeko eskaintako proposamen pedagogikoaren oinarrian hainbat aukera ematen dira haurrek beren lana sortu, aintzat hartu, hari buruz hitz egin, eta besteen ideia edo sentimenduetan eta artista handien artelanetan inplizitu dagoen sormena estima dezaten.

Ikasten ikasteko gaitasuna

Ikasten ikasteko gaitasunaren ondorioz, haurra gai da modu autonomoan ikasteko, eta horretarako, **pentatzeko estrategiak** eta **abileziak** erabiltzen ditu. Horiei esker, ezagutza berriak aurretik di tuenekin lotzen di tu, eta hainbat te stuingurutan era bil d ezakeen ezagutza berria sortzen du.

Irakaskuntzako profesionalek sarrien lortu nahi duten eta gehien baloratzen duten helburuetako bat da ikasleak duten ikasteko gaitasunaren jakitun egitea, gaitasun horiek garatzea eta ikasle autonomo bihurtzea. Horren ondorioz, beren burua ebaluatzeko gai izango dira, bai eta hainbat testuingurutan egoera berriei aurre egiteko eta egoera horiek konpontzeko ere.

Funtzionamendu kognitiboa e stimulatzerako ego ngoko di ra bid eratuta gait asun honen garapena sustatzeko irakasleek erabiliko dituzten ikaskuntza-estategiak eta -teknikak. E tapako itzari dagozkion buru-abilezien bidez egingo da hori, eta ikaskuntza konstruktiboa eta esanguratsua sustatzea izango du xede.

Haurren hezkuntza-prozesuan lehenetsia izan behar du ezagutzarako tresnen eraketak; hau da, ezagutzak, ohiturak eta abileziak barneratzeko aukera ematen duten funtzio psikikoen garapenak. Haurrek ikasten ikasi behar dute, datuak eta informazioak biltzen baino gehiago.

Horixe da **Ukimugi proiektuaren** oinarrietako bat, eta hori lortzeko, hainbat ikaskuntza-egoera eskaintzen zaizkio irakasleari bere lanean laguntzeko. Ikaskuntza-egoera horiek lagungarriak dira haurrek arazoak modu sortzailean konpontzeko gaitasuna garatzen; hori lortzeko, hausnarketa, azalpena eta norberaren estrategien nahiz prozeduren bidez konponbideak bilatzea barnean hartzen duten jolas-egoerak sortzen dira, eta besteak beste erabilitakoekin konparazioak egiten ere. Horrela, eskuratutako baliabideei esker, eskola-jardueraren autokritika egin dezakete, eta horren ondorioz, autonomia eta ikasten ikasteko gaitasuna finkatuko dituzte.

Ikasten ikasteak barnean hartzen du ikasteko moduari eta norberaren ikasteko ahalmenei buruz gogoeta egiteko gaitasuna garatzea. Horri esker, gero eta pertsona seguruagoak, autonomoagoak, sortzaileagoak eta parte-hartzaileagoak izango dira. Beste gaitasun guztietan bezala, alderdi kognitiboen eta emozionalen garapena ere dakar berekin; izan ere, nork bere burua ezagutzearen ondorio izan daiteke negatibotzat dituzten alderdiak hautematea, bai eta ikasteko gaitasun gutxi edo mugatua dutela uste izatea ere. Hortaz, autoestimua, akatsak eragindako porrota onartzeko gaitasuna eta ahalegina egiteak berekin dakarren tentsioa dira ikasten ikasteko gaitasunaren helburuak lortzeko garatu behar diren abilezia batzuk.

Laburbilduz, ikasten ikastea helburu-prozesu bat da, gero eta modu eraginkorragoan ikasten jarraitzea ondorio duen esperientzia. Horrela, ikasteko nahia garatzen da, eta hortaz, funtsezkoa da gaitasun hori Haur Hezkuntzan lantzen hastea.

Gure argitalpen-proiektuan eskainitako materialen bidez, beharrezko baliabideak eskaintzen ditugu praktikari hori eskolatze-aldiaren lehen urteetan gero abian jarritzeko, eta pixkanaka, hezkuntza-etapa guztietan aldatzeko eta zabaltzeko.

Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna

Gaitasun honek barnean hartzen du nork bere buruaren kontzientziaren pertzepzioarekin zerikusia duten jarrerak eta gaitasunak garatzea, balio pertsonalak eskuratzea eta emozioak erregulatzea, erabakiak hartzea, jarduerak egiteko eta beren proiektuen plangintza egiteko ekimena eta sormena erabiltzea, bai eta arriskuak kalkulatzeko ere. Horrez gain, autoestimua eta haurren garapen pertsonal nahiz soziala sustatzen duten pertsona arteko harremanak egiten laguntzen du.

Eguneroko jarduerak egiteko trebetasun horiek pixkanaka eskuratuz, eta gelako jardueretan espazioak eta materialak ekimenez, autonomiaz eta erantzukizunez erabiliz, **izaten jakitea** eta **egiten jakitea** garatzen dira, eta horrek haurren autonomia eta ekimen pertsonalerako oinarriak finkatzen ditu.

Pertsonetikiko eta ingurunearekiko elkarrekintza erabakigarria da norberaren garapen-prozesuan. Pixkanaka, bere buruaren kontrol handiagoa izango du, emozio-kontzientzia garatuko du, zer aukera eta muga dituen egiaztatuko du, eta besteekiko desberdintasuna eta helduekiko independentzia finkatuko ditu.

Gero eta nagusitasun psikomotor handiagoa, elikatze ohiturak eta, oro har, ongizatea haurren banako hazkuntzaren ezaugarriak dira. Haurrak beren gorputzaz ohartzen hasten dira, motrizitate xehea nahiz larria azkar-azkar garatzen, eta zer egin dezaketen konturatu hasten dira; beraz, erronka berriekin gozatu dute, eta ahalmenez baliatzen dira.

Nork bere burua ezagutzeari, garatzeari eta menderatzeari esker, autonomia fisikoa zabaltzen dute, eta aldi berean, helburuak bete dituzten entzuten dute. Prozesu horietan, ahalmen motorrak nahiz ahalmen kognitibo eta afektiboak jartzen dituzten praktikan. Horrek guztiak haurren hazkuntza pertsonala eta beren buruarekiko segurtasuna pizten ditu.

Laburbilduz, gero eta kontrol motor handiagoa, dituzten aukerez eta mugez ohartzea, autoestimua garatzea, eta lankidetzan eta talde-lanean aritzeko gizarte-abileziak garatzea lagungarriak dira beren burua gero eta hobeto ezagutzeko eta autoirudi positiboa eratzeko, bai eta helduekiko independenteago eta seguruago sentitzeko ere.

Garrantzitsua da ideiak ekintza bihurtzeko trebetasunak eskuratzea, hala nola proiektuen lidergorako jarrerak eta egiten dituen jardueretan autokritikarako ahalmenak garatuz. Horrek guztiak norberaren autonomiarekin eta ekimenarekin zerikusia duen gaitasunaren garapena eragiten du.

Ukimugi proiektuan eskainitako hezkuntzan esku hartzeko proposamena banako erritmoetara egokitzen da, eta norberaren autonomia eta ekimena bultzatzen duten ikaskuntza-egoerak ematen ditu.

Azaldutakoa lortzeko aurkeztu ditugun jarduerak eta estrategiak honako hau inplazatu dute: nork bere gorputza ezagutzeko eta menderatzeko; ekimena eta dituzten aukerekiko konfiantza; higiene-, elikadura-, jantzi-, atsedena- eta babes-ohiturak; eta besteekiko harremanak, bizikidetzara arauak errespetatuz.

• Gaitasun emozionala

Gaitasun emozionalak zehazten du gure sentimenduak menderatzen eta besteen sentimenduekiko harremanean zer trebetasun-maila eskura dezakegun.

Haur Hezkuntza funtsezko etapa da psikopatologia ugari (bakartzea, depresioa, antsietatea, inputsiotasuna, agresibitatea, autoestimua baxua...) saihesten dituzten ohitura emozionalak ikasteko. Oinarrizko ikaskuntza emozionalak lehen sei urteetan ikasten dira, nola etxean hala eskolan. Hori dela eta, hezitzailea eredu imitagarri bihurtzen da, gertakari bakoitzaren aurrean nola erantzuten duen.

Hezitzaileen eta haurren artean gertatutako truke oro haurraren jarrera eta ahalmen emozionala errazten edo oztopatzen duen testuinguruan gertatzen da.

Haurraren heziketa osatzeko, emozioak adierazteko eta ulertzeko, ohiturak garatu behar dira, bai eta besteekiko harremanean orekari eusteko gizarte-ahalekiak ere; adibidez, portaeraren autokontrolerako teknikak.

Haurrari emozioak kontrolatzen erakusteak berekin dakar hark emozio horiek testuinguruaren arabera adierazten ikastea; hots, unearen, egoeraren eta bertan dauden pertsonen arabera adierazten. Alderdi horri dagokionez, helduak eroso sentitzen eta emozioak behar bezala adierazten lagun diezaioke.

Ahaleki emozionalak garatzen hasteko, oinarrizko emozioak identifikatzen eta besteen emozio-adierazpenaren seinaleak bereizten irakatsiko diegu pixkanaka haurrei; izan ere, emozioak gehienetan hitzik gabe adierazten dira. Halaber, emozioak behar bezala interpretatzen, behar bezala jokatzeko laguntzen duten pentsamenduekin lotzen, eta ondorio negatiboak dakartzaten emozioak kontrolatzen ere irakatsiko diegu.

Haurrak apurka-apurka ulertuko du sentimenduz osatuta dagoela, eta berariazko emozio batekin erantzuniko du, zer egoera den. Denboraren eta esperientziaren poderioz, emozio-bizipenen arteko antzekotasunak eta desberdintasunak barneratuko ditu.

Haurtzaroko etapa honetan, modu erabakigarrian egiten du te aurrera kontzientzia moralaren sorreran, ekitzek eta emozioek besteengan ondorioak dituztela konturatu behar dira. Duten portaerak besteengan erantzunak eragiten dituela ulertzen dutenean, bulkadak kontrolatzeko oinarria eskuratzen dute.

Esperientzia emozionalak sailkatuz eta taldetan bilduz, gogo-aldarteari orekatuta eusteko ahalmena garatzen dute, eta horrek oreka emozional handiagoa sortzen du.

Emozioak ulertzeak eta erregulatzeak berekin dakar horiek interpretatzen eta adierazten, antolatzen eta identifikatzen ikastea, bai eta gertueneko ingurunean testuinguruan bulkadak eta erreakzioak antolatzen ikastea ere.

Prozesu horren isla da beren burua ulertzen hastea eta gizarte-kontzientzia hasiberria eskuratzea. Horren ondorioz, banakako eta gizarteko portaera-arauak barneratzen dituzte.

Ukimugi proiektuaren bitartez, hezkuntzan esku hartzeko gure proposamenaren xedea honako hau da: haurrek beren sentimenduak eta besteenak ezagutzeko, eta sentimenduak adierazteko moduak zein diren jakitea, bai eta sentimenduak erregulatzeko eta kontrolatzeko moduak ere.